

NEGOZIO IDEIA (BIZI MENDI)

Mendietan eta naturguneetan esperientzia pertsonalizatuak antolatzen dituen zerbitzua, ingurumenarekiko errespetuan, natura-hezkuntzan eta aire libreko jardueretan oinarrituta, hala nola, mendi-ibilaldiak, fauna behaketa eta natura-tailerrak.

Negozio-idea hau honako GJHarekin (Garapen Jasangarrirako Helburuak) lotuta dago: GJH 15 (Lurreko ekosistemen bizitza). Gainera, negozioaren egituraren arabera, beste GJH batzuekin ere bat egin dezake: GJH 12 (Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak), GJH 13 (Klimaren aldeko Ekintza), GJH 8 (Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa).

Gure enpresarako autonomia izatea onena dela hasiera batean erabaki dugu. Negozioa abiarazteko errazena eta merkeena delako. Hasieran diru gutxi gastatzea nahi dugu, eta gure proiektua txikia izango denez, administrazioa eta kudeaketa sinpleagoak izatea nahi dugu. Gainera, guk geuk zuzenduko dugu dena, eta horretarako ez dugu forma juridiko konplexu bat behar.

Behin hazten garenean edo bazkideak behar baditugu, orduan Sozietate Mugatura pasatzea pentsatuko dugu. Orain, autonomia izatea da egokiena guretzat.

Gaur egun, berdintasunaren alde neurriak hartzea garrantzitsua dela uste dugu. Hala nola, izon zein emakumeen soldatak berdinak izango dira, betetako lan edo papelen arabera, soldataren balioa igo edo jeitziko da, baina papel edo arlo bereko pertsonen soldataren balio bera izango dute. Gainera, formakuntza hobea duen pertsonak jasoko du beharrezko edo nahi izanezko lana, emakume edo gizon izateak ez du eragina izango.

Hau izango litzateke gure enpresaren logoa:

Kolore hauek aukeratu ditugu, kolore berdea naturarekin lotzen dugulako eta bere izena mendietatik dator. Zuhaitza agertzen da naturarekin ere lotura duelako.

